

Prentsa oharra

EUSKAL ERAKUNDEEK EGOITZA BATERATUA AURKEZTU DUTE 2030EKO MUNDIALERAKO

FIFArek eskakizun zorrotzak sakon aztertuta, interes orokorra lehenetsiz eta herri ikuspegi batetik jarduteko asmoarekin, tartean diren erakundeek, Bilbo eta Donostiako Udalek, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, aukeraketa prozesuan aurrera egiteko erabakia hartu dute FIFARI ezarritako baldintza zerrenda bat oinarri harturik. Horren denaren ondorio da euskal egoitza bakarra planteatu dela bi futbol zelai barne hartuz, San Mames eta Anoeta.

Bilbo eta Donostiako Udalek, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, Athletic Clubarekin eta Realarekin elkarlanean, FIFARI helarazi diote 2030eko Mundialerako egoitza bihurtzeko prozesuan jarraitzeko borondatea adierazteko agiria, Bilbo eta Donostia hiriak barne hartzen dituen hautagaitza bateratua aurkeztuz. Hala egin dute FIFAK aukeraketa prozesurako jarritako egutegia jarraituz, tartean diren administrazioek behar besteko ikerketak eta analisiak egin ondoren, antolakuntzak ezarritako eskakizun eta baldintzekin ados eta erabakiak hartzeko orduan interes orokorra eta herri ikuspegia lehenetsiz.

Premisa nagusi hori oinarri hartuta, eragindako administrazioek ondorengoa adierazi nahi dute:

1.- Egoitza bietako lurraldeetako erakundeek lau urte daramatzate, lan serio eta zorrotza eginez, 2030eko Mundialerako egoitza bihurtzeko lanetan, eta bide beretik jarraituko dute hemendik aurrera datozen faseetan.

2.- 2022. urtean, Euskal Erakundeek, FIFAK exijitutako zenbait errekerimendu handi ikusita, baldintza orokorrak landu zituzten, eta 2024. urtean FIFARI dokumentu bat helarazi zioten, ikuspuntu ekonomikotik zein hiritargoarengan eragingo zuen inpaktuagatik, egoitza bietako bakar batek ere bere gain hartuko ez zituen alderdiak adieraziz.

Euskal erakundeek marra gorritzat nabarmendutako elementuen artean aipatzen dira koste ekonomiko oso altuak; egoitzetan nazioarteko gertakariak egiteko orduan planteatzen diren exigentziak; arau-markoa aldatzeko beharra; estadioetan

inbertsio berriak egiteko derrigorra; Euskadiko hizkuntza ez erabiltzea; lehiaketa egiten den denbora berean egoitza-hiritan beste gertakaririk ez egitea; eta zenbait eksklusibitate Mundiala antolatzen duen enpresaren mesedetan.

3.- 2026ko martxoan, FIFako ordezkariak San Mames eta Anoeta futbol zelaiak bisitatu zituzten. Bisita amaitutakoan, urte bi lehenago adierazitako baldintzak kontuan hartuak ere izan ez zirela, Erakunde bien aldetik analisi sakon bat egin zen 2030eko Mundialaren egoitza bi (2) hartzeko eskakizun guztiak onartzeak ekarriko lukeenaren inguruan.

4.- Euskal Erakundeek, egoitza bien artean komunean jartzeko prozesu baten ondorioz, ondorengoa erabaki dute: ordezkatzan duten hiritargoaren interesen eta ongizatearen defentsari eutsiz, FIFari aurrekontu bakar bat (1) aurkeztea, bere gain hartzeko prest egongo liratekeen alderdiak jasoko lituzkeena, kontuan hartuta biak egoitza bakar batean (1) elkartuko liratekeela, bi (2) estadiorekin (San Mames eta Anoeta) 2030ean taldetan antolatuko den faserako, futbol estadio bakoitzean bi (2) partida jokatuz.

5.- Euskal Erakundeek ulertzen dute hala ez egiteak, esandako proposamen hori onartuta zein ez, kaltea ekarriko lukeela euskal gizartearentzat, oro har. Eta hala jakinarazi dio FIFari egoitzak aukeratzeko prozesurako atzo bertan, 2026ko maiatzaren 31n, bidali zen egutegian oinarrituta.

6.- Hala eginez adierazi da euskal erakundeen interes irmoa, San Mames eta Anoeta izan daitezen FIFaren 2030eko Munduko Kopako partidetarako egoitza. Enpresa antolatzaileak proposamen horri emango dion erantzunaren zain geratu dira orain.

7.- Azkenik, Euskal Erakundeek berretsi egin nahi dute koordinatuta eta arestian adierazitako interes orokorraren mesedetan eta herri ikuspegiarekin lan egiteko konpromisoa, FIFak exijitutako dokumentazioa seriotasun eta zorroztasun osoz prestatzeko, hautagaitzaren eta antolakuntzaren arteko negoziaketak eramateko behar den diskrezioa errespetatuz, betiere.

Euskadin, 2026ko ekainaren 1ean.

Nota de Prensa

LAS INSTITUCIONES VASCAS PRESENTAN UNA SEDE CONJUNTA PARA EL MUNDIAL 2030

Analizadas en profundidad las elevadas exigencias de la FIFA, anteponiendo el interés general y desde una perspectiva de país, las instituciones implicadas (los Ayuntamientos de Bilbao y Donostia, las Diputaciones Forales de Bizkaia y Gipuzkoa y el Gobierno Vasco) han decidido continuar adelante en el proceso de selección bajo una lista de condiciones fijadas a la FIFA y que derivan en el planteamiento de una única sede vasca con dos estadios, San Mamés y Anoeta.

Los Ayuntamientos de Bilbao y Donostia, las Diputaciones Forales de Bizkaia y Gipuzkoa, el Gobierno Vasco, junto al Athletic Club y la Real Sociedad, han trasladado a la FIFA un documento oficial en el que comunican su voluntad de continuar en el proceso para ser sede del Mundial 2030 a través de una candidatura de sede conjunta de las ciudades de Bilbao y Donostia. Lo han hecho cumpliendo los plazos establecidos por FIFA en el proceso de selección de sedes, después de que las administraciones implicadas hayan realizado los pertinentes estudios y análisis de acuerdo con las exigencias y condiciones de la organización, y anteponiendo el interés general y la perspectiva de país en la toma de decisiones.

Bajo esa premisa principal, las administraciones implicadas quieren trasladar lo siguiente:

- 1.- Las Instituciones de ambas sedes llevan cuatro años trabajando de forma seria y rigurosa para ser sedes del Mundial 2030 y continuarán en esa misma senda en las fases subsiguientes.
- 2.- En el año 2022, las Instituciones Vascas, ante la elevada exigencia de determinados requerimientos exigidos por la FIFA, trabajaron sobre las condiciones generales y, en 2024, trasladaron a la FIFA un documento que recogía los aspectos que consideraban que no podían ser asumidos por ninguna de las dos sedes, tanto desde el punto de vista económico como del de impacto en la ciudadanía.

Entre los elementos señalados como líneas rojas por las instituciones vascas se recogen algunos costes económicos muy elevados; las exigencias para demostrar la capacidad de celebrar eventos internacionales en las sedes; la necesidad de modificar aspectos normativos; la exigencia de nuevas inversiones en los estadios y en los territorios; la no inclusión de las lenguas cooficiales en Euskadi; la no

realización de otros eventos en las ciudades-sede durante las fechas de la competición; y determinadas exclusividades para la empresa organizadora del Mundial.

3.- El pasado mes de marzo de 2026 representantes de la FIFA visitaron los campos de San Mamés y Anoeta. Tras esa visita, sin que ninguna de las cuestiones trasladadas dos años antes por las Instituciones Vascas hubieran sido ni siquiera consideradas, se comenzó un análisis profundo de lo que supondría aceptar todas las peticiones para acoger dos (2) sedes del Mundial 2030.

4.- Las Instituciones Vascas, en un proceso de puesta en común entre ambas sedes, han decidido que: en la defensa de los intereses y el bienestar de la ciudadanía a la que representan, presentar a la FIFA un (1) presupuesto único de lo que supondrían los aspectos que sí estarían dispuestos a asumir, considerando que ambas se unirían en una (1) única sede, con dos (2) estadios (San Mamés y Anoeta) para una fase de grupos en el año 2030, jugándose dos (2) partidos en cada estadio.

5.- Las Instituciones Vascas entienden que no hacerlo de esta forma, sea aceptada o no dicha propuesta, supondría un perjuicio para la sociedad vasca, en general. Y así se lo ha hecho saber a la FIFA en la documentación que, en base al calendario del proceso de elección de sedes, se ha enviado en el día de ayer, 31 de mayo de 2026.

6.- De este modo, se ha trasladado el firme interés institucional vasco para que San Mamés y Anoeta sean sede de la Copa Mundial de la FIFA 2030. Y se queda a expensas de respuesta de la empresa organizadora del evento.

7.- Por último, las Instituciones Vascas quieren insistir en su compromiso para continuar trabajando de forma coordinada y bajo los parámetros de interés general y perspectiva de país antes señalados en la preparación seria y rigurosa de la documentación exigida por la FIFA, respetando asimismo la discreción que rige las negociaciones entre la candidatura y la organización.

Euskadi, 1 de junio de 2026.